

Urdaibai biosfera erreserba. Landa-eremuaren funtsezko balioa lurraldearen garapen iraunkorra bermatzeko

(The Urdaibai biosphere reservation. The fundamental value of the rural environment to guarantee the sustainable development of the territory)

Arana Eiguren, Xabier
Eusko Jaurlaritza. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu saila.
Udetxea jauregia. 48300 Gernika-Lumo. urdaibai@ej-gv.es

UNESCOk biosfera erreserba izendatu ondoren, 1989. urtean Eusko Legebiltzarrak Urdaibaiko legea onartu zuen. Urrats horiek bidea ireki zuten Busturialdean kokaturiko lurraldea eta gizataldeak iraunkortasunaren bila abiatzeko. Urdaibai biosfera erreserbaren planifikazioan eta kudeaketan landa-eremuak funtsezko eginkizuna betetzen du, esparru honetan baitaude ondare naturalaren eta kulturalaren aparteko balioak, bai eta gizarteak behar dituen zerbitzu eta baliabideak. Gainera, landa-gizartea ezin ahaz genezake.

Giltza-Hitzak: Urdaibai. Lurraldea. Iraunkortasuna. Ondarea. Naturaren zerbitzuak. Gizarte-aniztasuna. Jakintza. Partaidetza.

Tras ser declarada reserva de la biosfera por la UNESCO, el año 1989 el Parlamento Vasco aprobó la ley de Urdaibai. Estos pasos abrieron el camino para que este territorio situado en Busturialdea y su comunidad emprendieran la búsqueda de la sostenibilidad. El medio rural juega un papel fundamental en la planificación y gestión de la reserva de la biosfera de Urdaibai, ya que en este ámbito se dan excepcionales valores naturales y culturales, junto con los servicios y recursos necesarios para la sociedad. Además, no podemos olvidar la sociedad rural.

Palabras Clave: Urdaibai. Territorio. Sostenibilidad. Patrimonio. Servicios de la naturaleza. Pluralidad social. Conocimiento. Participación.

Après avoir été déclarée réserve de la biosphère par l'UNESCO, en 1989 le Parlement Basque approuva la loi d'Urdaibai. Ces démarches ouvrirent la voie pour que ce territoire, situé à Busturialdea, et la collectivité entreprennent l'étude de la durabilité. Le milieu rural joue un rôle fondamental dans la planification et la gestion de la réserve de la biosphère d'Urdaibai, car l'on trouve dans cette région des valeurs naturelles et culturelles exceptionnelles, ainsi que les services et les instruments nécessaires pour la société. De plus, nous ne pouvons pas oublier la société rurale.

Mots Clés: Urdaibai. Territoire. Durabilité. Patrimoine. Services de la nature. Pluralité sociale. Connaissance. Participation.

LABURPENA

UNESCOk biosfera erreserba izendatu ondoren, 1989. urtean Eusko Legebiltzarrak Urdaibaiko legea onartu zuen. Urrats horiek bidea ireki zuten Busturialdean kokaturiko lurraldea eta gizataldeak iraunkortasunaren bila abiatzeko.

Urdaibai biosfera erreserbaren planifikazioan eta kudeaketan landa-eremuak funtsezko eginkizuna betetzen du, esparru honetan baitaude ondare naturalaren eta kulturalaren aparteko balioak, baita gizarteak behar dituen zerbitzu eta baliabideak ere. Gainera, landa-gizartea ere ezin dezakegu ahaztu.

1. URDAIBAI BIOSFERA ERRESERBA

Bizkaiko kostaldean kokatuta dagoen lurralde honek, Oka ibaia du bizkarrezur, Mundakako itsasadarra bihotz eta Izaro irla begirale nekaezin. 22.000 hektareako azaleran, 22 udalerrri hartzen ditu bere baitan, eta 44.000 biztanle. Horietatik, Bermeoko eta Gernika-Lumoko hiribilduetan biltzen dira gehienak, beste herrixka txikiagoetan bizi direnekin batera, nahiz eta landa-eremuetako herritar franko zenbatu ahal den arroan sakabanaturiko milaka baserri eta txaletetan. Baina horiek ez dira Urdaibaiko bizidun bakarrak, paisaia ezberdinetan milaka landare, animalia eta izaki beha baikekitzake. Hauekin batera, eta inguruak erakusten duen aniztasun oparoa gozatuz, historiaurretik gaur egunera arte gizakiak lagatako ondare kulturalaren adierazpen ugari ikusiko dugu nonahi. Naturaren eta kulturaren adierazpen anitz horiek giza jardueretan era berdintsuan islatzen dira, eskualde honek lehen sektoreko ohiko lanak, industriaren alor desberdinak eta zerbitzu munduaren ostadar oparoa bere magalean gaurdaino gorde baititu.

Urdaibai biosfera erreserba, Euskal Herri atlantikoaren lagin adierazgarria da. Ez da gure natura edo landa-paisaiaren parke ikusgarria soilik. Garapen iraunkorra bideragarria izateko asmoz diseinatutako egitasmoa da, eta horien kudeaketa saiorako eszenatokiak Oka ibaiaren artoa eta Mundakako itsasadarraren sabela dira. Horretarako, Eusko Jaurlaritza, hori guztia kontutan hartuta, UNESCO erakundearen MaB programan (Gizakia eta Biosfera) oinarritu zen. UNESCOren Programa hori, jakintzak oinarrituz, gizakiak bere inguruarekin dituen elkarrekintzak ulertzeaz eta bide onetik eramateaz arduratzen da. Bide horretan, 70. hamarkadan, Biosfera Erreserbak MaB Programaren baitan sortu ziren, gizakia eta natura banandu beharrean, ondo eta luzaroan ezkontzeko asmoz. Egun, 500 biosfera erreserba inguru daude mundu osoan sakabanatuta, ia 100 estatutan.

Orduan, bada, zein da Urdaibairen azken misioa? Biosfera erreserba eta honen helmuga nagusia garapen iraunkorra da, horretarako, bertako gizarte aniztasuna, landa-eremua, sistema ekonomikoa, jakintza eta partaidetza ezinbesteko aldagaiak dira. Helburu hori betetzeko, lurraldea bere osotasunean hartu da aintzat, batzuetan zuzenean eta beste zenbaitetan zeharka jardunez.

Baina eginkizuna ez da bere mugetan amaitzen, Urdaibairen eskarmentua eta emaitzak zabaldu egin behar baitira Euskal Herri osora, biosfera erreserben munduko sarera eta gizateriak osatzen duen familia handira.

UNESCOk Biosfera Erreserba izendatu zuenean abiatu zuen Urdaibaik iraunkortasunaren bidea (orduan ekogarapena). Ondoren, Eusko Legebiltzarrak 5/1989, Legea onetsi zuen, **Urdaibai biosfera erreserbaren babeserako eta antolamendurako**. Legearen izenburuan garapenaren alderdi guztiak agertzen ez badira ere, helburu nagusian (1. artikulua) ondo bereiz genezake arlo sozialaren eta ekonomikoaren garrantzia:

Lege honek Urdaibaiko Biosfera-Gebenalderako berarizko lege-jaurpideak jartzea du helburu, horko lurrei, landareei, bazterraldeei (paisaia), urei, eguratsari eta orohar izadi-erapidetza (ekosistema) osoari izadiaren, zientziaren, hezkuntzaren, kulturaren, aisealdien eta gizarte-ekonomien aldeetatik duen garrantziagatik bere onean iraun dezan babesa emateko eta bere oneratzeko laguntzeko.

Hurrengo ataletan aztertuko dugunez, Urdaibai biosfera erreserbako lege honek landa-eremura bideratzen ditu zehaztapen nagusiak, nahiz eta lurralde osoa jarduketarako esparru bihurtu.


2. LANDA EREMUA ETA INGURUMENA: ONDARE ETA ONDASUNEN NATURALEN ETA KULTURALEN GORDAILUA

Urdaibaiko 5/1989 Legeak, lurraldeak jasaten ari zen presioa aintzat izanik, baliorik handieneko lurralde-eremuak babestu zituen zuzenean, natura eta kultura kontutan hartuta. Hain zuzen ere, Llegeak berak zuzenean kalifikatu zituen Babes Berezikoko Eremu modura ondoko aldeak: Itsasadarra, itsasertza, Kantauri aldeko artadiak eta aztarnategi arkeologikoak (zerupekoak eta kobazuloetakoak).

Beste alde batetik, lehendik klasifikatuta zeuden zoru urbanizatu eta hirigarriak aipatu zituenez, Legeak lurraldearen gune nagusi biak azpimarratu zituen: herriak eta, bestetik, ingurumen eta kultura aldetik landako balio nagusiko eremuak. Beheko planoan Urdaibaiko Legeak 1989an babestutako aldeak ikusten dira, nahiz eta balio arkeologikoa dutenak ez bereizi, azalera txikikoak baitira.

Lurraldearen muturreko multzo nagusi biak ("naturalena" eta artifizialena) ezarri ondoren, teoriarik lurraldean balio handiena zuten *landa-lurreko alde naturala eta kulturala versus kokaleku produktiboak eta giza habitat* zehaztuz, Legeak agindutako ondoko tresna biak garatu eta onartu ziren:

- a) **Erabilpen eta Kudeaketarako Egintamugak** (15. art.).
- b) **Jarduera Sozio-ekonomikoen Egokitzapen eta Garapenerako Programa** (16. art.).



Erabilpen eta Kudeaketarako Egitamu Gidaria (aurrerantzean EKEG/PRUG), 1993.an onartu zen eta 2003 aldatetako jaso zituen. Honen helburu nagusiak lurraldearen antolamendua eta bertako baliabide naturalen antolaketa dira, eta lur azaleko nahiz lur azpiko uren, bertako basoen eta landa-eremuko usadioen zaintza egin behar berezien artean daude. Edonola ere, EKEG/PRUGaren edukia azaldu aurretik (gain begirada eginez), beharrezkoa da ondoko hau azpimarratzea: lurraldearen antolamendurako ingurumen tresna hau hirigintza planen gaineratik dago (lehenetasuna du).

Hona hemen lurralde-antolamendurako tresna honen helburu nagusiak, eta horietan landa-eremuak betetzen dituen eginkizun baliotsuak nabarmen azaltzen da:

“1) Itsasbazterreko, estuarioko eta sistema karsitikoko ekosistema berezien babespena bermatzea.

2) Dibertsitate biologikoari, baliabide genetikoei eta ingurumenaren orekari eustea.

3) Multzo paisajistiko baliotsuak babestea.

4) Garrantzi historiko-artistiko eta kulturalerako ondasunak Urdaibaiko biosfera erreserbaren sisteman sartzea.

5) Ingurumenari lotutako ondare naturalaren eta kulturalari buruzko ikerketa, interpretazioa eta heziketa sustatzea.

6) Aisialdiko erabilpena eta turismoa artez sustatzea.

7) Landa-garapena, biztanleriaren bizi-kalitatea hobetzea eta baliabide naturalen erabilpen zentzuduna bultzatzea.

8) Uraren eta geologiaren zikloei eustea eta higadura ekiditea.”

Bestetik, EKEG/PRUGak lurralde-antolamendurako ondoko kategoriak ezarri zituen:

A) Hirigintza-planeamenduak antolatu beharreko zorua (OPU) klasifikazioa

B) Landa-lurra klasifikazioa

Landa-lurra klasifikazioan, ondoko kalifikazioak agertzen dira:

- a) Babes bereziko eremuak
- b) Babespeko eremuak (P)
- c) Abelur garrantziko eremuak (A)
- d) Baso eremuak (F)
- e) Landa-lur arrunteko eremuak (SRC)
- f) Landa biztanlegune eremuak (NP)
- g) Sistema eremuak

Oso luzea izango litzateke eremu hauetan azaltzen diren Alde guztiak azaltzea, horregaitik baina komunikazio honen helburuak betetzeko goiko informazio laburtua nahikotzat hartuko dugu. Izan ere, ikusi dugunez, EKEG/PRUGak ezarri zuen metodologia eta kategoriekin, Urdaibai osoaren zonifikazio zehatza ezarri zen, eta hori Biosfera Erreserben hiru aldeetan ikus daiteke laburbilduta:

Biosfera Erreserben antolamendua eta Urdaibai			
Gune aldea	Babes bereziko eremuak		
Tanpoi aldea		Babespeko eremuak	
Igarapen aldea			<ul style="list-style-type: none"> - Abelur garrantziko eremuak - Baso eremuak - Landa-lur arrunteko eremuak - Landa biztanlegune eremuak - Sistema eremuak - OPU eremuak

Goiko helburuak betetzeko, eguneroko jardue-raz gain, EKEG/PRUGak garapen tresnak aurreikusi zituen: a) Lurralde Ekintzarako Egitamua; b) Erabilpen Egitamua; c) Programa osotuak. Orain arte, lurraldearen zati bati dagokionez, artadien eremuko plana onartu da.

Amaitzeko, Legearen eta EKEG/PRUGaren bidez, eta lurralde-antolamendua eta ingurumen-irizpideak tresna nagusi izanik, aparteko biodibertsitatea, baliabide natural nagusiak, ondare kultural zabala, paisaia ikusgarriak eta abelur aberatsenak babestu ziren. Azken batean, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru-programan (2002-2006) azpimarratzen diren Helmuga bi aipatu ditugu:

1) *Natur baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua.*

2) *Natura eta biodibertsitatea babestu: Sustatu beharreko balio bakana.*

3. LANDA EREMUA ETA GIZARTEA: GIZARTEANIZTASUNA ETA SEGURTASUNAREN BERMEA

Sarri askotan, lurraldea (landa eremuak, batez ere) erauzketarako/isurketarako espaziotzat edo kokapen-espazio fisiko soiltzat baloratzen dugu. Iraganen zalantzarik barik azpimarratzen zen gure inguruetako lurraldeen ekoizpenerako balio ukaezina, baina hori bigarren mailara pasatu bide da globalizazioarekin eta lurzorurik gabeko nekazaritzaren ametsekin. Bestalde, hiriak, neurri handi batean, erabakiak hartzeko eta dirua irabazteko bakarrik nahi ditugunez, orain landa-eremuaren bila goaz gure aisiaz gozatzeko eta lasaitasun nahiz osasun bila, bai eguneroko joan-etorrian edo bai asteburuetan: Beraz, kaletarren ikuspuntutik eta gaitasunetik begiratuta (diru franko eta mugikortasunerako erraztasunak), orain landa-eremua birkolonizatzeke edo intentsuki erabiltzeko garaia iritsi da.

Baina Euskal Herri atlantikoan, batez ere gure haran estu, txiki eta maldatsuak diren hauetan, ez gara ohartu landa-ingurunearen eginkizunak oraindino ez direla agortu, are gehiago, horren lurralde populatuetan bizi garenean. Ondoko ideiak gogoan izan ditzagun:

3.1. Gure haranetako lur lauak, urriak bezain aberatsak dira nekazaritzako eta abeltzaintzarako

Horrenbestez, lur hori baserritarren iraupenerako ezinbesteko kapital naturala da, elikagai osasuntsuak eskuratzeko, ogibide zahar honen ezagutza ez galtzeko, landazabalak irauteko, agrobiodibertsitatea kontserbatzeko, kalitate handiko paisaia zaintzeko,... Lur urbanizaezinean koherentea ote da horien urbanizazioa? Planeamenduak "de facto" dena hirigarri definitzen duenean (babestuta kalifikatuta dagoena salbu), lurzoruen balioa zoruaren prezioa bilakatzen da. Urdaibaiko helburu nagusien artean, lurzoru gozoko lur-zelaia

babestearen (1.780 ha) erronka dago, bai porlanaren itoalditik eta bai baso-landaketa mugagabe-etatik.

3.2. Landa eremuak eta bertako biztanleek gorde duten ondare kultural baliotsua

Biodibertsitatearekin gertatzen den bezala, oraindik ezagutu eta sailkatu ez den ondarea eta informazioa galtzen ari da. Landa eremuan dagoen ondare arkeologikoa, historikoa eta etnologikoa nork ezagutzen du bere osotasunean? Materiala ez den ondarea (ipuinak, abestiak, esaerak, ohiturak, usadioak, ...) ahaztu edo museo-liburu hotzetan sartzeko gauza al gara? Landa-eremuaz gozatu nahi dugunean, "zinemako ordezkioak" edo tokiko biztanleak nahi ditugu? Urdaibain egoera horretaz jabetzen gara, eta, den dena babesteko edo balioesteko denbora behar denez, gure borondate eta baliabide guztiak bideratuta daude ezaguna den ondarea zain-terera eta ezkutuan dagoena ezagutzera.

3.3. Hiri eta herri nagusiak arroen behe-aldeetan edota ibaien ertzetan daude

Ondorioz, uholde arriskua murrizteko naturari begirunea izateaz gain, ingurumena aintzat hartu behar dugu lurraldea planifikatzeko eta kudeatzeko orduan. Eraikinak ibarretan ez eraikitzea eta uraren ziklo hidrologikoa errespetatzea ez dira alperreko aholkuak. 1983ko eta 2002ko uholdeak eta 1989. urteko suteak hondamen naturaltzat sailkatzen badira ere, gizakiak ardura handia izan zuen horietan guztietan. Urdaibain, une oso latzak pairatu ziren zorigaiztoko guzti hauetan. Arro hidrografikoak ondo antolatzea eta zaintzea ez da txantxetako lana, arriskuak murrizteaz batera ura modu iraunkorrean erabiltzen ikasi behar baitugu (ibaiak eta akuiferoak ondo zainduz eta lehengoratzuz). Gaizki kudeatutako arroetan, uholdea ibaiak gainez egiten duenean sortzen ola, bai, baina ez ditugu ahaztu behar mendi lepoetatik maldan beheara datozen basazko itsaso handiak. Gure biosfera erreserban, balio natural eta kultural aparta daukaten eremuetan ez ezik, ibai ertzetan eta hauen ibarretan ere ezin da eraikin berririk egin. Gainera, babes distantziak daude baso-landaketetatik orain dauden eraikinetara.

3.4. Landa-eremua energia iturri eta tokiko klimaren erregulatzailea

Oraindik ere energia gehiena landa eremutik jasotzen dugu (biomasa, energia hidrauliko eta eoliko, eta mineral anitz gisa), hiriek gero eta bitarteko gehiago badauzkate ere energiaren auto-horniketarako (eguzkitikoa edo eoliko). Itsasoak dira CO₂ hartzaile nagusiak, eta basoz eta bestelako landarez estalitako espazioak itsasoaren atzetik doaz eginkizun horretan. Baina landa-eremuek CO₂ xurgatzen duen era berean, hiri eta alde urbanizatuek energia kontsumitzeaz gain, berotegi efektuko gasak isurtzen ari dira etenik gabe. Hori gutxi ez balitz, ez dute eguzki-argirik harrapatzen, eta horre-

la ingurua berotzen laguntzen dute. Efektu hau are negargarriagoa da eraginkortasun gutxiko eraikinek eta jarduerak neurririk gabe beroa askatzen dutenean. Beraz, klima-aldaketa gure arduren artean badago, energia berriztagarri gehiago ekoizti behar dugu hirietan eta landa-eremuetan (kontu handiaz, jakina), eta hiriek lehenbailehen ikasi beharko dute energia alperrik ez galtzen. Bide horretan, herriek eta alde urbanizatuak eta horiek lotzeko azpiegiturak, ez dute landa eremuarekiko oreka galdu behar, bestela mikroklimak berotzera joko duelako eta geure bizi-kalitatea eta segurtasuna ez direlako izango orain arte ezagutu ditugunak (bero boladak, lehorreak, ekaitz bortitzak edo sute-arriskuak dira horren lekuko). Urdaibain, **Energia-ingurumen Plan Zuzendaria** erabiltzen ari gara, Energiaren Euskal Erakundearekin batera (EVE), inguruko baliabideak hobeto aprobetxatzeko, kontsumoa murriztu eta energiaren erabilera eraginkorra, garbia eta anitza sustatzeko. Helburu horiek bat datoz goian aipaturiko Euskal Ingurumenerako Esparru-programarekin: 5. helmuga, *klima aldaketaren eragina mugatzea*. Nik hauxe gehituko nuke: planetan eta gure inguruan, biak lotuta baitoaz.

Atal hau amaitzeko, gogoan izan behar dugu naturak eta landa-ingurua osotzen duen ingurumena (gizakiaren bizilekuak), baliabideak eskaintzeaz gain, zerbitzu zabal eta oparoak ere ematen dizkigula, Nazio Batuetako Erakundeak oraintsu gogora ekarri digunez. Horiek ez dute preziorik (merkatuan), baina zenbatu ezineko balioa bai ordea. Euskal estrategiaren 1. helmugak ere horri heldu dio: *Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak izan ditzagun bermatzea*.

4. LANDA EREMUA ETA SOZIOEKONOMIA: SARE EKONOMIKO SENDOAREN OINARRIA

Dibertsitatea naturan onuragarria den era berean, ekonomian ere sistema anitza bermea bide da. Monokultiboa, arriskutsua izateaz gain, mugatzaileria da era berean. Gogoeta honek elkarrekintza eta sinergia kontzeptuetara garamatza. Gure gizartea ekosistema industrialak orain asmatzen ari da, natura bera kopiatzeko asmoz (biomimesia).

Landako eta kaleko ekonomien elkarrekintza okerraren ondoriok ulertzeko, ondoko bidaia proposatzen dugu:

- Landa-eremuak elikagai osasuntsu, kalitatekoak eta tokiari egokituak diren produktuak eskaintzen dizkigu. Baita ura, energia, klima eta erre-glazio hidrologikoa eta paisaia ikusgarria ere.
- Herrian edo hirian bizi gara eta gure ogibidea ere hortxe dugu. Egunero, etxean ura, elikagaiak eta energia eskura ditugu arazorik gabe. Hondakinak eta ur zikinak “desagertu” egiten dira miraria balitz bezala.
- Bestalde, gure aisialdirako landa-ingurunea nahi dugu. Bazter guztiak erabili eta arakatzen ditugu gure kotxean, baserriko eta naturako biz-

tanleei begirune edota arreta gutxi erakutsiz. Diru nahikoa aurreztu dugunean, lehen edo bigarren egoitza hortxe kokatuko dugu. Gure “beharrizan” berriek azpiegiturak handitu eta lurraldearen prezioa puztu dute.


- Hiriko etxean gaude berriro. Baserritar askok presioari eutsi ezin diotenez, landa-ustiapenak laga dituzte. Gure etxeetan kanpoko produktuak erosi behar dira derrigorrez. Baserriak zaindu duen landazabala ixten hasi da, paisaiak kalitatea galdu du eta aisialdirako eta landa-turismorako aukerak murriztu egiten dira.
- Orain, baserrietako ekonomia zaurituta dago eta landa eremuak galdu egin du bere edertasuna. Espazio irekiak pinuz edo eukalitz jantzi dira, etxe berrien eta azpiegitura handien artean. Nekazalturismoak, landa-etxe bihurtuta, erdi hutsik daude. Bizkaiko balkoitik orain ezin dugu Urdaibai gozatu.

Txango hau, errealitatetik hain urrun ez dagoena, baikorragoa izan daiteke. Horixe da **Urdaibaiko Jarduera Sozio-ekonomikoen Egokitzapen eta Garapenerako Programaren** (PADAS) helburua: Eskualde osoko baliabideak eta jarduerak era eraginkorrean erabili, ingurumenari begiratuz. Horretarako, lurraldeak ematen dituen aukera, potentzialitate eta elkarrekintza guztiak ondo uztartu behar dira giza-kapitalarekin batera, tokiko bizi-kalitatea eta ekonomia hobetzeko. Asmo honekin batera eskualdeak dituen arazoak gaituztu eta erronkak jorratu behar direnez, PADASa Urdaibaiko Agenda 21^a da; eskualde osokoa, alegia.

Adibidez, goiko osteratxoa begi onez ikusita, baserrian jasotako fruta edo mahatsa marmelada edo txakolina bihurtu dugu herriko lantegian, ondoren hiritik doazenek goza dezaten gosarian, Gernikan ekoiztitako kutxarilarekin, Izarori begira dagoen nekazalturismoan.

Landa-eremuko lanak, dirua sortzeaz gain, landa-paisaia zaindu eta erabat humanizatuta dagoen ingurumenaren oreka bermatzen du. Horregatik, herri eta hirien aberastasuna seguruagoa egon dadin, inguruari itzuli egin behar dizkio bere etekinaren atal batzuk. Horretarako, baserrietan eta basoetan ingurumena zainduz ekoiztitako produktuei bidezko prezioa eman behar zaio, eta naturak eskaintzen dituen zerbitzuak baloratu, babestu eta ordaindu (ekozergak) egin behar dira.

Beheko irudian Europako Natura 2000 sarera gehituta dauden edo sartzeko dauden eremuak ikusten dira. Biodibertsitatearen eremu beroak edo aberatsak dira. Gizarte osoak horiek babesteko ahalegina egin behar du, natura zainduta eta, aurrekontuen bidez, premiazko bitartekoak onartuta. Baina natura lehen mailako esparru horietan baino eremu zabalagoetan dagoenez, landazabaletan, horien kontserbazioa eta erabilera iraunkorra ere aintzat hartu beharko dugu. Ea ekonomiaren eta ekologiararen etxe biak (eko) ondo uztartzeko gauza garen.



5. LURRA BIRAKA ARI DA; GIZARTEA EZ DAGO GERATUTA

Goiko atalean esandakoak, jakina, ez gaitu eskenatoki izoztura eraman behar. Mundua mugitzen ari baita, kosmosean eta gure kaleetan. Bestela begira: Munduko gizakien populazioa goraka doa (ia 6.400.000.000 *Homo sapien sapiens* lurrean); biosferako bidaia-lagunak gero eta urriagoak ditugu (biodibertsitatea galtzen ari); distantzia fisikoak gero eta txikiagoak dira; errepideak kotxez josita kolapsatuta daude; komunikatzeko tresnak are hedatuagoak (komunikazio gaitasuna beste kontu bat da); lurra berotzen ari da; ur garbia urriagoa da eta polo eta glaziarretan metatuta zegoena itsasoko kresalarekin nahasten ari da; ekonomia globalizatua

dago; herrialde aberatsen eta txiroen arteko leizea sakontzen ari da; laugarren mundua agertu da hiri oparoetan; bakea oraindino ez dakusagu,...

Urdaibain ere gauzak mugitu egin dira 1993-2003 urteen artean, EKEG/PRUGa onartu eta aldatu zen epe muga hauetan. Zorionez, langabezia jaitsi egin da, baina baserritarrek eta arrantzaileak gutxitu dira. Naturaren kontserbazioaz kontzientzia gehiago bide daukagu, baina landare inbaditzaileak bazter guztietara zabaltzen ari dira. Azterketa osoa egiteko espaziorik ez dugunez, EKEG/PRUGaren zonifikazio-aldaketak aztertuko ditugu jasandako mugimendu horien berri edo tententziak ulertzeko.

EKEG/PRUG	Urtea		Aldea	
	1993	2003	hektareak	
Babes Bereziko eremuak	2.486	2.597	+ 111	
Babes eremuak	5.415	5.241	- 174	
Abelur garrantzitsu eremuak	1.817	1.780	- 37	
Basogintza eremuak	6.840	6.805	- 35	
Landa Lur Arrunta eremuak	4.400	4.357	- 43	
Landa Biztanleguneak (NP)	330	408	+ 78	
Sistema eremuak	42	52	+ 10	
Landa-eremua osotara	21.330 (97 %)	21.240 (96,5 %)		
OPU	670 (3 %)	760 (3,5 %)	+ 90	
Azalera guztira	22.000 (100 %)	22.000 (100 %)		
OPU+NP + Sistema eremuak	1042 (4,75 %)	1.220 (5,55 %)	+ 178	

Goiko taulan ikusten denez, Babes Bereziko Eremuek gora egin dute, baina Babes Eremuek behera, ordea (neurri batean azken hauetako asko Artadietako Babes Berezietako eremura gehitu zire-

lako). Bestalde, OPU eremua ez da hazi landa lur arrunteko lurak (- 43) bakarrik hartuz, teoriar hori aurreikusten bazen ere. 90 hektarea horietatik, 30 inguru poligono industrialak handitu edo sortzeko

izan dira. Dena den, landa-biztanleguneen azalaren gorakada oso datu nabarmena da (Herri gehienetan mugatu eta antolatuta gabe zeuden), eta horiek kalifikazio guztietako lurra hartu dituzte, oso sakabanatuta baitaude Urdaibai osoan. Herri edo zoru urbanizagarriak (OPU), % 3 izatetik % 3,5 izatera igaro dira. Sistema eremua zeharka hartuko dugu kontutan, errepideen sarea oraindino ez baitago ondo kuantifikatuta. Amaitzeko, lurra porlanez edo galipotez erabat estali edo modu intentsuan erabiltzen dituzten kalifikazioak elkarrekin zenbatuta (OPU+NP+Sistema eremuak), eta errepide sarea ere aintzat hartuz, Urdaibai biosfera erreserbaren % 6a inguru dago urbanizatuta.

Sistema urbanoari dagokionez, herrietako bizitza ekonomikoa (merkataritza, ostalaritza, industria, eraikuntza, turismoa) nabarmendu behar da, batez ere herri handietan (Bermeo, Gernika eta bere ingurua); baina herri txiki gehienetan ez; izan ere, azken horietan, denda eta ostalaritza gune gehienak eta arrantza kofradiak itxi egin dira. Hala ere, gune ekonomiko berriak sortzen ari dira. Batzuk difusoak dira edo turismoarekin batera ibiliko direnak; besteak, ordea, eskualdeko jardura ekonomiko potoloenak (eremu industrialak) hartuko dituzte (Muxika), "eremu hautaketaren" eragin hori lurraldearen ezauzgarri eta balio hauskorrek sortzen dute.

Komunikabideei dagokionez, portuak, errepideak, trena eta xendak aipa daitezke. Portu nagusia Bermeokoa da eta hiru erabilerak (arrantza, merkataritza eta kirola) gorde eta sustatu nahi ditu. Mundaka eta Elantxoben, miraririk egon ezean bada, kirol portuetan bilakatuko dira bere osotasunean. Bestetik, Urdaibain errepide zabala dago, baina autoen parkearen gorakadak, Bermeoko portuko trafikoa astunak eta bisitarien autoen erabilera mugagabeak azaro handiak sortzen ditu. Gainera, Autzagane eta Sollubeko gain arrisksuek abenturako bidaia proposatzen die kamioilariei. Eskualdeko herri nagusiek (Gernika, Mundaka) saihesbideak eraiki dituzte eta Bermeo ere horretan dabil. Trena, ordea, gure altxor ikusgarri polita da, eskualde osoa zeharkatzen du Bilbotik edo Zornotzatik datozen bidaiariek. Baina azken urteetan bere erabilera behar da, eta oraindik ez da merkantziak (errepide bihurrietan erortzen diren bobinak alegia) ateratzen hasi konboietan, nahiz eta horretarako Bermeoko portuan azpiegitura prestatuta egon. Zorionez, eskualdeak xenden sare zabala du, Kostaldeko Donejakue Bidea, Ardo eta Arrainaren ibilbidea edota Urdaibaiko bira horren adibide nagusiak dira. Datu okerrena da gure bidegorrien sarea oraindino planoetan bakarrik goza dezakegula. Amaitzeko, kanpo harremani dagokionez, gure kostaldeko portuetaz gain, Loiuko aireportua eta autopista sarea oso hurbil daude gure eskualdetik.

Paisaia aldatzen ari da etenik gabe, baina hirien eta kaleen zabalkunde azkar eta amorratuari eutsi egin behar zaio. Horrenbestez, Euskal Herriaren edo Urdaibairen gaineko gogoeta ezgin dugu Santimamiñeko iluntasun hotzean bakarrik oinarritu. Horregatik, gure etorkizunaz aritzeko, Euskal

Herriari, Europari eta munduari begira egon behar dugu. Gurera etorrita, gainera, lurraldeaz eta gizarteaz hausnarketa sakona egin beharra dago, osotasuna aintzat hartuz eta berdintasuna aldarrikatuz, kaletar edo landako edo kostaldeko herritarrentzako. Euskal Ingurumenaren estrategiaren 4. helmugak dionez, *Lurraldearen oreka eta mugikortasuna behar dira, ikuspegi komunitario*.

Gaurko "ogitartekoak" eta etorkizuneko gakoak zeintzuk diren jakiteko, eta hiriko eta landako eremuaren arteko adostasuna eta oreka bermatzeko beharrezkoak dira, ezagutza, partaidetza eta elkarriketa, azken batean oinarri sendoko itunak ezinbestekoak izango baitira. UNESCOren MaB programaren kontzeptuak erabilia, Kontserbazioa eta Garapena ondo uztartzeko, Laguntza beharrezkoa da (ezagutza, partaidetza eta komunikazioa). Urdaibain, ondoko bitarteko hauek erabiltzen ari gara:

Jakintza:

- *Urdaibai esparruko Garapen Iraunkorrerako eta Ingurumen Hezkuntzarako UNESCO Katedra.*
- Bestelako ikasketak (ondare naturala eta kulturala, soziologia, giza habitataren bilakera,...).
- Egoera orokorrari buruzko txostenak.
- Lurraldearen bilakera eta giza-habitataren azterketa.
- Ikastaroak, mintegiak eta hitzaldiak.

Elkarrizketa-topaguneak:

- Urdaibaiko biosfera erreserbako Zaingo Batzordea.
- Urdaibaiko biosfera erreserbako Lankidetzako Kontseilua.
- Urdaibaiko Garapen Iraunkorrari buruzko Jardunaldiak.

Partaidetza:

- Tokiko Agenda 21 (Urdaibai-Busturialdeko Udaltalde 21).
- Eskolako Agenda 21.
- Ingurumen boluntarioen sareak eta ekimenak.
- Herritarren partaidetzarako ohiko bideak eta iradokizunak.
- Kanpainak: energia, mugikortasun iraunkorra, ...
- Eguneroko jardun arduratsua.

Urdaibai biosfera erreserbako aktore nagusiak bertako herritarrak dira, landa-eremuan eta herrietan. Lur gehiena pribatua da eta jardura ekonomikoak, batez ere, herrietan herritarren eskuetan daude. Beraz, paisaiaren eta ekonomiaren kudeatzailak eta arduradun zuzenak egunero jarduten dutenak dira. Administrazioak laguntze- eta arautze-lanetan ari dira eta, zenbaitetan sustapen proiektu zuzenak ere izaten dituzte (mendi publikoetan edo industrialdeetan).

Urdaibain erabaki nagusiak Administrazio publikoen eskuetan badaude ere (ondasun orokorra edo komuna zaintzeko ahaleginean), partaidetza ahalbide-

tzen duten mahaiak daude, eta horietan, Administrazio guztietako eta tokiko gizarte-eragile guztien ordezkariak elkartzen dira. Lehen aipatu denez, Urdaibai biosfera erreserbako Zaingo Batzordea (24 kide) eta Lankidetzak Kontseilua (14 kide) horren adierazle dira. Partaidetza zuzenari dagokionez, ingurumenaren arloko boluntariok dira horren adierazle nagusiak.

6. AMAIERA GISA

Landa-esparruaren ondarea, ondasunak, baliabideak, zerbitzuak eta, azken batean, balio handia ukaezina da. Inguru biofisikoa izateaz gain, gure gizartearen multzo kualitatiboki handia ere hortxe bizi da. Hiriak begirunea sor dio landa-eremuari, gaurko gizartearen beharrian ez baitira kaletarren nahietara soilik mugatu behar. Badakigu erabakiak eta plangintzak hirietan diseinatzen direna, baina Herri edo lurralde ikuspegi osoa hartu beharra da aintzakotzat. Hori dagokionez, hiriek barnerantz garatzen ikasi behar dute lurralde eraginkortasunaren ikuspegitik. Bestalde, lurraldearen gaineko erabakiak arduraren berdintasunean, elkartasunean, bideragarritasunean eta iraunkortasunean oinarritu behar dira. Etorkizunari begira, hurrengo belaunaldiei Urdaibai eta mundu hobea, osasuntsuagoa eta seguruagoa uzten saiatu behar dugu (gure txikitasuna munduan ahaztu gabe, baina era berean gure ardura saihestu barik) Amaitzeko, ez da Urdaibai eta Euskal Herria bizitzaz borborka, oparo eta sendorik egongo landa eremurik gabe.

7. URDAIBAI BIOSFERA ERRESERBAKO ONDAREA, PLANGINTZA ETA EKIMENAK EZAGUTU NAHI BADIRA:

www.euskadi.net/urdaibai

8. GAIARI LOTURIKO EGILEAREN IDAZLANAK

ARANA EIGUREN, Xabier. "Kontserbazioaren eremu-motak". Non: *Naturaren kontserbazioa: nora goaz?*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1993; 21-25 orr.

ARANA EIGUREN, Xabier. "Kontserbazioa eta garapena Urdaibaiko biosfera erreserban". Non: *Jornadas sobre planeamiento ambiental del territorio y desarrollo sostenible*, 25. zenb., Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1995; 103-107 orr.

ARANA EIGUREN, Xabier. "El interés social de la actividad agraria y su desarrollo sostenible en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai". Non: *Desarrollo rural y medio ambiente: el futuro del sector agrario*, 35. zenb., Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2007; 257-260 orr.

ARANA EIGUREN, Xabier. "La ordenación de la actividad turística en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai". Non: *Hacia un turismo sostenible en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai*, 47. zenb., Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1998; 141-148 orr.

ARANA EIGUREN, Xabier. "Un momento de reflexión sobre el desarrollo socioeconómico de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai". Non: *Garapen sozioekonomikorako estrategiak biosfera erreserbetan*, 43. zenb., Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1999; 167-170 orr.

ROZAS ORMAZABAL, Marta eta Xabier ARANA EIGUREN. "La ordenación de la actividad forestal de la reserva de la biosfera de Urdaibai". Non: *Baso sistemen kontserbazioa, erabilera eta kudeaketa*, 58. zenb., Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2001; 237-241 orr.

ARANA EIGUREN, Xabier. "Naturgune babestuak, lurralde antolamendua eta garapen jasangarria". Non: *Eusko-news & Media*, 153. zenb., Eusko Ikaskuntza, 2002.

ARANA EIGUREN, Xabier. "La reserva de la biosfera de Urdaibai. Un proceso encaminado hacia la sostenibilidad". Non: *Jornadas sobre la Reserva de Biosfera de Menorca*. col.lección RECERCA, 2, Menorca: Institut Menorquí d'Estudis, 2002; 197-202 orr.

ARANA EIGUREN, Xabier. "El reto de la sostenibilidad en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai. Ensayos sobre un escenario real, entre lo posible y lo deseable". Non: *Boletín de la Sección del Estado español de EUROPARC*, 16. zbk., Madrid: Sección española de EUROPARC, 2003; 37-42 orr.

ARANA EIGUREN, Xabier. "Reserva de la biosfera de Urdaibai. La práctica de la sostenibilidad en un territorio humanizado europeo". Non: *Cuarto catálogo español de buenas prácticas. Hábitat II.*, Madrid: Sustapen Ministerioaren Argitalpen zerbitzua, 2003; 295-301 orr.

ARANA EIGUREN, Xabier. "Naturaren kontserbazioa eta ingurumena. Urdabai: izadia, baserria eta gizakia jasangarritasunaren kabian". Non: *Globalizazioa eta ingurumena. Euskal begirada bat*, Bilbao: Udako Euskal Unibertsitatea, 2003; 115-123 orr.

ARANA EIGUREN, Xabier. "Urdaibaiko biosfera erreserba eta ondare kulturala". Non: *Patrimonio Cultural*, 64. zenb., Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2004; 51-56 orr.

ARANA EIGUREN, Xabier. "Plan de desarrollo sostenible (PADAS) y Agenda 21 de la reserva de la biosfera de Urdaibai". Non: *La integración social de los espacios naturales protegidos. I simposio hispano-suizo <Tierra Adentro>*, Monografías de la Red de Espacios Naturales de Castilla y León, Valladolid: Junta de Castilla y León, 2005; 279-288.

ARANA EIGUREN, Xabier. "Urdaibaiko ondare natural eta kulturalaren kontserbazioa eta baliospena". Non: *Urdaibai (1984-2004): Etorkizunari begirada, hausnarketa eta gizarte ekintzaren ikuspegitik. Urdaibaiko garapen iraunkorrari buruzko X. Jardunaldiak*, 66. zenb., Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2005, 31-36 orr.

ARANA EIGUREN, Xabier. "Valores y retos de la reserva de la biosfera de Urdaibai". Non: "Actas del III Congreso español de biogeografía", UPV/EHU. Prentsan.